



**GIZA ESKUBIDEAK, KRISI EKONOMIKOKO GARAIETAN EGITEN  
DIREN POLITIKA PUBLIKOEN BERME GISA  
Arartekoaren azterlana**

2012ko ekaina



*“Munduko krisi ekonomiko eta finantzarioek ez dute gutxitzen agintaritza nazionalak eta nazioarteko komunitateak giza eskubideak gauzatzeko duten erantzukizuna.*

Nazio Batuetako Giza Eskubideen Kontseilua, 2-10/1 Ebazpena, 2009ko otsailaren 23koa

*“Herrialde zordunetako biztanleek elikadurarako, etxebizitzarako, jantzeko, lan egiteko, hezkuntzarako, osasun-zerbitzuetarako eta ingurumen osasungarrirako dituzten oinarritzko eskubideak ezin dira jarri doikuntza estrukturaleko politiken aplikazioaren, hazkunde-programen eta zorraren ondorioz abiarazitako erreforma ekonomikoen mende”.*

Nazio Batuetako Giza Eskubideen  
Kontseilua, 11/5 Ebazpena, 2009ko ekainaren 17koa



## GIZA ESKUBIDEAK, KRISI EKONOMIKOKO GARAIETAN EGITEN DIREN POLITIKA PUBLIKOEN BERME GISA

### AURKIBIDEA

1. Sarrera
  
2. Giza eskubideen aldeko erakunde publikoak, giza eskubideen balio eta printzipioen sustatzaile gisa
  
3. Batez ere krisi-garaian politika publikoen gidari izan beharko luketen giza eskubideen printzipioak
  - A. *Giza eskubideak unibertsalak, banaezinak eta elkarren mendekoak dira.*
  - B. *Berdintasuna eta bereizkeriarik eza dira giza eskubideen sistema osoaren elementu egituratzailea.*
  - C. *Botere publikoek eskubide sozioekonomikoak errespetatu, babestu eta bete behar dituzte.*
  - D. *Eskubide sozioekonomikoak progresiboki gauzatu behar dira, «bide egoki guztietatik» erabil litezkeen «baliabide guztiak» erabili arte.*
  - E. *Eskubide sozioekonomikoen inguruko neurri atzerakorrak onartezinak dira, printzipioz.*
  - F. *Botere publikoek beren ekintzen kontuak eman behar dituzte, eta ordainerako, informaziorako eta herritarren parte-hartze aktiborako eskubideak bermatu behar dituzte.*
  
4. Praktikan, zer esan nahi du politika publikoek giza eskubideen printzipioetan oinarritu behar dutelako ideiak?
  - A. *Barne legediak giza eskubideen oinarritzko edukia bermatu behar du, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearekin bat etorriz.*
  - B. *Berdintasuna ez da printzipio kontu bat soilik; horrez gain, beharrezkoa da sistema ekonomikoaren funtzionamendu ona ziurtatzeko.*
  - C. *Gizarte-politikak ez dira soilik funtsezkoak eskubide sozioekonomikoak lortuko direla bermatzeko; ekonomikoki produktiboak eta errentagarriak ere badira.*
  - D. *Informazio berezia eman behar da eskubide sozioekonomikoen eskuratzemailari buruz.*



- E. Beharrezkoa da politika publikoek giza eskubideetan nola eragiten duten ebaluatzea.*
- F. Kontuak eman beharrak eta eskubideak elkarren mendeko izateak berekin dakarte eskubide horien bermeak zabalkiro interpretatzea.*
- G. Informazioa eskuratzeko eskubidea bermatu behar da, eta herritarren parte-hartze aktiboa sustatu.*

## **5. Ondorioak**



## 1. Sarrera

Gaixotasun baten bilakaeran izandako aldaketa bat-batekoa, pazientea hobetzea zein okertzea dakarrena; beste prozesu batzuen garapenean izandako mutazio garrantzitsua, prozesu horiek fisikoak, historikoak zein espiritualak direla; gai edo prozesuen egoera, baldin eta zalantzazkoa bada jarraipenik edo aldaketarik izango ote duten edo bertan behera utziko ote diren; ondorio garrantzitsuak dituen negozio larri baten une erabakigarria; arretaz azertu ondoren zerbaiti buruz egiten den judizioa; gabezia, garestitzea; egoera zail edo konplexua. Hori dena da krisia, bere adiera guztietan, Espainiako Errege Akademiaren arabera.

Hainbat faktoreren mende dago adiera horietako zeinek definituko duen ondoen orain bizitzea egokitu zaigun krisi ekonomiko hau. Faktore horietako bat, garrantzitsuena segur aski, hauxe da: giza eskubideek zer eginkizun duten krisiaren kudeaketan eta krisitik irteteko bidearen bilaketan.

Duela hiruzpalau urtetik hona, Arartekoak bere begiz ikusi du krisi ekonomikoaren giza- eta gizarte-alderdia. Herritarren giza eskubideetan, batez ere eskubide sozioekonomikoetan, ondorio nabarmena izaten ari dira, beste errealitate batzuen artean, langabezia-tasa jasanezina, diru publikoen mehartzea eta interes orokorreko zerbitzuen murrizketak/doikuntzak. 2011n izugarri handitu dira herritarren erreklamazioak (% 26), neurri handi batean nabarmen ugartu direlako arlo hauetan egindako jarduketak: hezkuntza (% 38), etxebizitza (% 54) eta gizartean baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako arreta (% 320).<sup>1</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko Defentsa Bulegoak egindako lanaren % 55 inguru gizarte-eskubideekin dago lotuta.

Bizi dugun egoera ekonomiko larriak ez die eragiten soilik familien eta enpresa txikien poltsikoei. Horren ondorioak diru-kutxa publikoetan ere ikusten dira. Administrazio guztiak ari dira, ezinbestean, gastu publikoa berrantolatzen, eraginkortasun gorenaren irizpideak aplikatuz. Alabaina, ezinago garrantzitsua da gastua berrantolatzeko orduan herritarren premiak kontuan hartzea, batez ere elkartasun sozialaren mendekoago diren pertsonen premiak, eta ardura handiz errespetatzea duintasuna, askatasuna, berdintasuna eta halako oinarritzko balioak.

Azterlan honen bidez, Arartekoak gogoeta egiten du politika publikoen diseinua gidatu behar duten giza eskubideen printzipioen inguruan, eta, printzipio horiek oinarritzat hartuta, hainbat gomendio praktiko aurkezten dizkie botere publikoei. Betekizun horrek ezinbestean gaituzten du Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen eskumen-esparrua. Dena dela, Arartekoak uste osoa du Autonomia Erkidego honetako administrazioek (toki, foru eta erkidego esparrukoek) beren politikak diseinatzeko erreferente baliagarri bat aurkituko dutela azterlan honetan.

---

<sup>1</sup> Arartekoa, *Eusko Legebiltzarrarentzako 2011ko txostena*, 2012, 25. or.



Behar-beharrezkoa da esanahiz janztea ordezkarari politikoek behin eta berriz aipatu izan duten giza eskubideekiko konpromiso hori. Diskurtsoaz harago, giza eskubideen alde irmoki egiteak hainbat inplikazio praktiko dakartza berekin, eta botere publikoek bere egin beharko lituzkete inplikazio horiek, beren konpromisoari leial izateko.

## 2. Giza eskubideen aldeko erakunde publikoak, giza eskubideen balio eta printzipioen sustatzaile gisa

*Parisko Printzipioak*, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1993ko abenduan onarturikoak, dira giza eskubideen aldeko erakunde nazional/publikoen funtzioei buruz nazioartean den erreferentziako araudi nagusia.<sup>2</sup> Printzipio horietan lehenak adierazten du erakunde horiek eskumena dutela giza eskubideen sustapen eta babesaren arloan“.

Arartekoaren kasuan —1979ko Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuan aurreikusitako erakundea (15. artikulua) —, "*bere xede nagusia da herritarrak agintari eta agintaritzen gehiegikerietatik eta Euskal Herri Administrazioaren utzikarieretatik babestea*".<sup>3</sup> Xede "nagusi" horretaz gain, Arartekoak bere gain hartzen du politika publikoak ebaluatzeko erantzukizuna, bai eta giza eskubideak, horien oinarri diren balioak eta giza eskubideak errespetatzeko kultura sustatu eta defendatzeko ere.<sup>4</sup> Europako Herritarren Defentsa Bulegoen eginkizunen analisi konparatu bat eginez gero, ikus liteke ia era horretako erakunde guztiei eman zaiela administrazioaren lana indarrean dagoen esparru juridikoaren argitan aztertzeko eginkizuna, horien barnean direla, noski, giza eskubideen estandar arauemalleak.<sup>5</sup>

Giza eskubidetzat eskubide zibil eta politikoak nahiz eskubide ekonomiko, sozial eta kultural (EESK) deiturikoak hartzen dira.<sup>6</sup> EESK-k pertsonentzako oinarritzko

---

<sup>2</sup> Nazio Batuetako Batzar Nagusia, 48/134 Ebazpena, 1993ko abenduaren 20koa, Eranskina. Defentsa-bulegoak giza eskubideen erakunde nazional moduko bat dira (giza eskubideen aldeko batzordeekin, bitartekariekin edo interes publikoaren defendatzaileekin batera). Termino horrek nahasbidea ekar dezake Euskadiren testuinguruan, eta, horregatik, azterlan honetan "nazional" hitzaren ordez "publiko" erabili dugu.

<sup>3</sup> "Arartekoa" erakundea sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legea, 1.2 artikulua (EHAA, 63 zk., 1985eko martxoaren 22koa).

<sup>4</sup> Ararteko erakundearen antolaketa eta funtzionamenduaren Araudia, 2. artikulua (EHAA, 56. zk., 2010eko martxoaren 24koa).

<sup>5</sup> Gabriele Kucsko-Stadlmayer (ed.), *European Ombudsman-Institutions: A comparative legal analysis regarding the multifaceted realisation of an idea*, Springer, 2008.

<sup>6</sup> "Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak" 1966ko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunean aitortutako eskubide guztiak dira, besteak beste etxebizitzarako eskubidea, osasun fisiko eta mentalerako eskubidea eta hezkuntzarako eskubidea. Hala, azterlan honetan bereizi gabe erabili ditugu adierazpen hauek: "eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak", "EESK", "eskubide sozioekonomikoak" edo soil-soilik "gizarte-eskubideak".



eskubide gisa aitortzen dira hala barne zuzenbidean nola nazioarteko zuzenbidean.<sup>7</sup> Nazio Batuetako EESKen Batzordeak, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna (EESKNI) betearazteko arduradunak, adierazi du giza eskubideen aldeko erakunde publikoen "lana erabakigarria izan daitekeela giza eskubideak sustatzeko eta giza eskubideen banaezintasuna eta elkarren arteko mendekotasuna bermatzeko".<sup>8</sup>

1978ko Konstituzioko 9.2 artikulua haxe ezartzen du:

*"Botere publikoei dagokie inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezen; oztopoak kentzea, horiek haien osotasuna eragotzi edo zailtzen badute; eta herritar guztien parte-hartzea erraztea, bai bizitza politikoan, baita ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzan ere".*

Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuko 9.2 artikulua ezarritakoaren arabera, euskal botere publikoei dagokie «*hiritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilpen egokia*» zaintzea eta bermatzea, «*bizitzeko eta lan egiteko kondizioen hobekuntza ekar dezakeen politika bereziki*» bultzatzea, «*enpleguaren gehikuntza eta ekonomiaren egonkortasuna suztatzen lagun dezaketen neurriak*» hartzea eta «*gizabanakoaren eta berori sartuko den taldeen askatasuna eta berdintasuna zinezkoa eta egiazkoa izan daitezen, diratekeen oztopoak erauzteko eta aldeko kondizioei eragiteko neurriak*» hartzea.

Bestalde, Espainiak 1977ko apirilean berretsi zuen EESKNI.<sup>9</sup> Horrez gain, nazioarteko beste itun batzuk ere berretsi ditu, hala nola giza eskubideen sistema unibertsalarena, Lanaren Nazioarteko Erakundearena eta giza eskubideak babesteko Europako sistemarena. Gainera, Espainia izan zen Europako lehen herrialdea EESKen Nazioarteko Itunaren Hautazko Protokoloa berresten, 2010eko irailean. Hori indarrean sartzean, banakoek aukera izango dute kexak jartzeko, baldin eta eskubide horietakoren bat urratu bazaie. Nazioarteko tresna horiek denak barneko esparru juridikoaren zati dira, Konstituzioko 96.1 artikulua argitan:

*"Baliozkotasunez eginiko nazioarteko itunak Espainian modu ofizialean argitaratu eta gero, barne-antolamenduaren osagai izango dira. Haien xedapenak indargabetu, aldatu edo eteteko, nahitaezkoa da itunetan euretan ezarritako moduan egitea edo nazioarteko zuzenbideko arau orokorrak betetzea".*

<sup>7</sup> Gizarte-eskubideak oinarrizko eskubide gisa aitortzea da joera nagusia Zuzenbide konstituzional konparatuan. Horri dagokionez, ikus, esaterako, Guillermo Escobar Roca (dir.), *Derechos sociales y tutela antidiscriminatoria*, Thomson Reuters Aranzadi, 2012, 95-285. or.

<sup>8</sup> EESKen Batzordea, 10. Ohar Orokorra. Giza Eskubideen aldeko Erakunde Nazionalak eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak babesteko duten eginkizuna, NBE E/C.12/1998/20 dok., 1998ko abenduaren 1a, 3. paragrafoa.

<sup>9</sup> BOE, 103. zk., 1977ko apirilaren 30a.



Karta magna horrek, 10.2 artikulua bidez, botere publikoei eskatzen die har dezatela kontuan giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea, eta batez ere 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, Konstituzioko I. Tituluan aitortutako eskubideak eta askatasunak interpretatzean.

Nazioarteko Zuzenbidearen ikuspegitik, 1969ko Tratatuaren Zuzenbideari buruzko Vienako Konbentzioak, zeinari 1972ko maiatzean atxiki baitzitzaion Espainia<sup>10</sup>, "*pacta sunt servanda*" izeneko printzipioa jasotzen du 26. artikuluan; horren arabera, "*indarrean den tratatu orok behartu egiten ditu alderdiak, eta haiek fede onez bete behar dituzte*". 27. artikulua, aurrekoaren korolariora, hauxe dio: "*Alderdiek ezingo dituzte beren barne zuzenbideko xedapenak arrazoitzat hartu tratatu bat ez betetzeko justifikazio gisa*". Ohiturazko araua da hori, Nazioarteko Justizia Auzitegiak halakotzat joa. Hain zuzen, nazioarteko zuzenbide publikoaren printzipio orokortzat hartzen du estatuen arteko harremanetan ezin zaiela barne zuzenbidea gailendu nazioarteko tratatuetako xedapenei.<sup>11</sup>

Nahiz eta esparru juridikoan sartu diren eskubide sozioekonomikoek gabezia handiak izan (horri buruz jardungo dugu aurrerago), baieztatu dezakegu Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean den esparru juridikoak, zeinak barne hartzen baititu erkidegoko, estatuko eta nazioarteko araudiak, aitortzen duela eskubide sozioekonomikoak giza eskubideak direla.

### **3. Batez ere krisi-garaian politika publikoen gidari izan beharko luketen giza eskubideen printzipioak**

#### ***A. Giza eskubideak unibertsalak, banaezinak eta elkarren mendekoak dira.***

«*Giza eskubide guztiak unibertsalak, banaezinak eta elkarren mendekoak dira eta elkarren artean erlazionatuta daude. Nazioarteko modu globalean eta era bidezko eta zuzen batean hartu behar ditu giza eskubideak, berdintasuna oinarri dela eta denei pisu bera ematen diela*». Hala, hotsandiz gelditu zen idatzirik Vienako Adierazpena eta Ekintza Programa, 1993ko ekainean egindako Giza Eskubideen Munduko Konferentziaren ostean.<sup>12</sup>

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (GEEA) jadanik *Airey Irlandaren aurka* kasu entzutetsuan (1979) adierazi zuen Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak batez ere eskubide zibil eta politikoak jasotzen baditu ere artikulua gehienek dituztela inplikazio ekonomiko eta sozialak, eta, beraz, ezin direla irmoki bereizi eskubide sozioekonomikoak eta Hitzarmenak aitorturiko eskubideen esparrua.<sup>13</sup>

<sup>10</sup> BOE, 142. zk., 1980ko ekainaren 13a.

<sup>11</sup> International Court of Justice, *Applicability of the Obligation to Arbitrate under Section 21 of the United Nations Headquarters Agreement of 26 June 1947*, 1988ko apirilaren 26ko Iritzi Aholku-emailea, 57. paragrafoa.

<sup>12</sup> NBE: A/KONF.157/23 dok., 1993ko uztailaren 12a, 5. paragrafoa.

<sup>13</sup> GEEA. *Airey Irlandaren aurka* kasua, 1979ko urriaren 9ko Epaia, 26. paragrafoa.





Gizarte-eskubideen unibertsaltasuna Konstituzioko 1.1 artikularen arabera Espainiak eratzten duen «zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoaren» ezinbesteko elementua da. Jadanik 1950ean, T.H. Marshall, EESKNIren sustatzaileetako batek (gaur egun mundu osoko 160k dute berretsia ituna), adierazi zuen eskubide sozialek, eskubide zibilekin eta eskubide politikoekin batera, edukiz hornitzen dutela «herritartasun» kontzeptua.<sup>14</sup> Marshallentzat, herritartasun sozialak berekin dakar, eskubide den aldetik, gizartean erabateko parte-hartzea ziurtatzeko beharrezkoa den gutxieneko ongizate-estandar bat bermatzea. Herritartasunaren ideia-interpretazio hori oinarritzat hartuta, gizarte-bazterketak herritartasuna era aske eta erabatekoan baliatzeko ezintasuna dakar. Bigarren Mundu Gerraren ostean mendebaldeko Europan eraikitako ongizate-estatuak herritartasun-eredu horixe erantzuten dio. Ez alferrik, EESKNIren 11.1 artikulua honako hau aitortzen du: *«persona orok du eskubidea beretzat eta bere familiarentzat bizi-maila egoki bat izateko, are elikadura, jantzi eta etxebizitza egokiak izateko ere, eta existentzia-baldintzak etengabe hobetzeko»*.

B. *Berdintasuna eta bereizkeriarik eza dira giza eskubideen sistema osoaren elementu egituratzailea.*

Bereizkeriarik eza eta berdintasuna, beste manu batzuen artean Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituneko 2.1 artikuluan (EZPNI)<sup>15</sup> eta EESKNIko 2.2 artikuluan aitorturikoak, giza eskubideen nazioarteko arauen funtsezko osagaiak dira, eta ezinbestekoak dira giza eskubide guztiak gozatzeko eta baliatzeko.

EESKen Batzordeak argiro adierazi du *«bereizkeriarik eza berehalako eta irismen orokorreko betebeharrak bat dela»*.<sup>16</sup> Bereizkeria giza eskubideen aurkako abusuen aurrean zaurgarriago izatearen kausa eta ondorioa da. Horregatik, erabateko berdintasuna bermatzeko, beharrezkoa da hala bereizkeria formala (legearen aurrekoa) nola funtsezkoa erauztea; beraz, botere publikoen eginbearra da *«oztopoak kentzea, horiek (eskubideen osotasuna) eragotzi edo zailtzen badute; eta herritar guztien parte-hartzea erraztea, bai bizitza politikoan, baita ekonomia-, kultura-, eta gizarte-bizitzan ere (1978ko Konstituzioko 9.2 artikulua)*.

Berdintasun funtsezko edo materialarekiko konpromisoa izateko, noraezekoa da botere publikoek arreta berezia ematea talde zaurgarrienei edo baztertuta geratzeko arriskuan direnei: *“Are baliabide aldetik muga larriak daudenean ere, direla doikuntza-prozesu baten ondorio, atzeraldi ekonomiko baten ondorio edo beste faktore batzuen ondorio, egiaz gizarteko kide zaurgarrienak babes litezke eta babestu behar dira, kostu txiki samarreko programak ezarriz”*.<sup>17</sup>

<sup>14</sup> T.H. Marshall, “Citizenship and Social Class”, in Jeff Manza eta Michael Sauder, *Inequality and Society*, W.W. Norton and Co., 2009, 148-154. or. (Lehenengoz 1950ean argitaratutako saiakera).

<sup>15</sup> Hori ere berretsia du Espainiak (BOE, 103. zk., 1977ko apirilaren 30a).

<sup>16</sup> EESKen Batzordea, 20. *Ohar Orokorra: Bereizkeriarik eza eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak*, NBE: E/C.12/GC/20 dok., 2009ko uztailaren 2a, 7. paragrafoa.

<sup>17</sup> EESKen Batzordea, 3. *Ohar Orokorra: Alderdi diren Estatuaren betebeharren izaera*, NBE E/1991/23 dok., 1990eko abenduaren 14a, 12. paragrafoa.



Gizarte-eskubideen unibertsaltasunak, nahiz eta ez duen uniformetasun ekonomiko absoluturik eskatzen gizarteko kide guztien artean, ongizate aldetik gogobetetzeko gutxieneko batzuk eskatzen ditu, bai eta desberdintasun ekonomikoa pixkanaka gutxitzea ere.

C. Botere publikoek eskubide sozioekonomikoak errespetatu, babestu eta bete behar dituzte.

Botere publikoek, EESKEi dagokienez, hiru betebeharrak dituzte. *Errespetatzeko betebeharra* beteko bada, administrazioak ez du eragotzi behar eskubide horiek gozatu ahal izatea (esate baterako, osasun-laguntza edo hezkuntza ukatzea pertsona bati, diskriminatzailea izateagatik debekatuta dagoen faktore baten zioz). *Babesteko betebeharra* beteko bada, administrazioak prebenitu eta eragotzi egin behar du hirugarrenek giza eskubideak urra ditzaten (esate baterako, ikastetxe pribatu batek ikasle bat ez onartu nahi izatea bere jatorri etniko edo nazionalagatik, bere sexu-orientazioagatik eta abar). Azkenik, *gauzatzeko edo betetzeko betebeharra* beteko bada, botere publikoek beharrezko neurriak sustatu behar dituzte eskubide horiek progresiboki gauzatzeko.<sup>18</sup>

D. Eskubide sozioekonomikoak progresiboki gauzatu behar dira, "bide egoki guztietatik" erabil litezkeen "baliabide guztiak erabili arte".

EESKNIko 2.1 artikularekin bat etorritik:

*"Itun honetako alderdi-estatu guztiek konpromisoa hartzen dute neurriak hartzeko, bai nork bere aldetik, bai nazioarteko laguntza eta lankidetzaren nagusiki ekonomiko eta teknikoaren bidez, harik eta hemen aitortutako eskubideak erabateko eragingarritasuna progresiboki lortzeko bide egoki guztietatik erabil litezketen baliabide guztiak erabili arte, horien barnean dela, bereziki, legegintza-neurriak hartzea».*

"Bide egoki guztietatik" adierazpena zentzu zabalean interpretatu behar da. Botere publikoek zehaztu behar dute, haiek baitute informazio garrantzizkoa, zein diren biderik egokienak eskubide horiek progresiboki gauzatzeko. Horrek esan nahi du administrazioak froga-karga bere gain hartu behar duela, eta frogatu behar duela hartutako neurriak eta politikak egokiak direla eskubide sozioekonomikoak maila

<sup>18</sup> Katalogazio horren jatorria Asbjorn Eide-ren *The Right to Adequate Food as a Human Right* txostena da: NBE E/CN.4/Sub.2/1987/23 dok., 1987ko uztailaren 7a, 66-69. paragrafoak. Orduetik, hiruko sailkapen hori hartu du Nazio Batuetako EESKen Batzordeak ere, eta ia aho batezkoa da doktrinan.



egokian betetzen direla bermatzeko.<sup>19</sup> Azken batean, tresna bat egokia izango da gizarte-eskubideak gauzatzeko eraginkorra bada.<sup>20</sup>

*“Erabilgarri dauden baliabide guztiak”* esapideari dagokionez, EESKen Batzordeak adierazi du politika publikoak “egokiak” edo “arrazoizkoak” diren zehazteko haxe aztertu behar dela: hartutako neurriek kontuan hartzen ote duten pertsona eta talderik zaurgarrienen egoera ezegonkorra, neurriak diskriminatzaileak ote diren, eta lehentasunik ematen ote zaien baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenei. Baliabideen mugari buruzko argudioen aurrean, besteak beste, Batzordeak irizpide objektibo hauek proposatzen ditu: a) herrialdearen garapen-maila; b) balizko arau-haustearen larritasuna, eskubideen oinarrizko edukia oinarriztat hartuta; c) herrialdearen egoera ekonomikoaren larritasuna; d) botere publikoek erabilgarri dituzten baliabide mugatuekin beste premia garrantzizko eta presazko batzuk asebate behar izatea (esate baterako, hondamendi natural bat); eta e) botere publikoek ahaleginik egin ote duten kostu txiki samarreko aukerak bilatzeko; eta f) nazioarteko laguntza eskatzea.<sup>21</sup>

Nahiz eta EESKNIko 2.1 artikulua pixkanaka gauzatzeari mintzo den, EESK-k giza eskubide gisa aitortzeak berekin dakar behintzat eskubide bakoitzaren *“funtsezko mailak”* asebetetzeko gutxieneko betebeharra. Betebehar gutxieneko eta zuzenekorik ez balego, eskubide horien aitortpen formalak ez luke, hein handi batean, zentzurik izango. *“Alderdi-estatuak gutxieneko betebeharrak bete ez izana baliabide erabilgarririk ez izateari egotzi ahal izan diezaioten, frogatu behar dute ahalegin osoa egin dutela erabilgarri dituzten baliabide guztiak erabiltzeko, gutxieneko betebehar horiek lehentasunez asebetetzeko ahaleginean”*.<sup>22</sup> Beste behin, botere publikoek frogatu behar dute, eta ez herritarrek eta ezta gizarterakundeek ere, zein diren biderik egokienak pertsonen ongizaterako bizi-maila egokiak gauzatzeko.

Eskubide bakoitzaren funtsezko mailak bermatzeaz gain, berehalako beste betebehar batzuk hauexek dira: jadanik aipaturiko diskriminatze debekua eta gizarte-eskubideak pixkanaka gauzatu dituzten neurriak hartzeko betebeharra. Nahiz eta neurriek ondorio progresiboak izan ditzaketen, berehalako betebeharra da neurri horiek hartzea.

---

<sup>19</sup> EESKen Batzordea, 3. *Ohar Orokorra*, 1990, 4. paragrafoa.

<sup>20</sup> EESKen Batzordea, 9. *Ohar Orokorra: Itunaren barne aplikazioa*; NBE: E/C.12/1998/24 dok., 1998ko abenduaren 3a, 5. paragrafoa.

<sup>21</sup> EESKen Batzordea, *Itunaren Hautazko Protokoloarekin bat etorritik erabilgarri dauden baliabide guztiak erabili arteko neurriak hartzeko betebeharraren ebaluazioa: Adierazpena*, NBE: E/C.12/2007/1 dok., 2007ko irailaren 21a, 8. eta 10. paragrafoak.

<sup>22</sup> EESKen Batzordea, 3. *Ohar Orokorra*, 1990, 10. paragrafoa.



E. Eskubide sozioekonomikoen inguruko neurri atzerakorrak onartezinak dira, printzipioz

EESK-k pixkanaka gauzatzeko betebeharrak berekin dakar, orobat, neurri atzerakorrak edo berariazko atzerapen-neurriak debekatzea. Ezin da hartu jadanik eskubide batzuek lortu duten babes-maila gutxitzeko neurririk. Jadanik eratu diren eskubideak murriztea edo gutxitzea edo eskubide bat baliatzeko beharrezko legedia indargabetzea berariazko atzerapen-neurrien etsenplu dira, eta Nazio Batuetako EESKen Batzordeak EESKNIren *prima facie* urraduratzat dauzka, non eta Estatuak ez duen frogatzen guztiz justifikatuta daudela, Itunean aurreikusitako eskubideen osotasunari erreferentzia eginda eta erabilgarri dauden baliabide guztiak erabat erabili direlako.<sup>23</sup> Beraz, Estatuak justifikatu behar du herritarren aurrean bere politiken egokitasuna.

F. Botere publikoek beren ekintzen kontuak eman behar dituzte eta ordainerako, informazioa eskuratzeko eta herritarren parte-hartze aktiborako eskubideak bermatu behar dituzte.

Kontuak emateko prozesuaren bidez, administrazioak giza eskubideen inguruko betebeharrak, batez ere eskubide sozioekonomikoei dagozkienak, nola bete dituen erakutsi, azaldu eta justifikatzen du. Bestalde, kontuak emateko prozesuak titularrei aukera ematen die gobernuek giza eskubideei dagokienez zer lehentasun dituzten ulertzeko. Prozesu horretatik ondorioztatzen bada botere publikoek gizarte-eskubideren bat urratu dutela, eskubideen titularrek aukera izan behar dute baliabide eragingarri bat eta ordaina eskuratzeko.<sup>24</sup>

Ordain-modalitate eragingarri bat errekurtsio judiziala da. Nahiz eta EESKNIk ez duen berariaz aurreikusten gizarte-eskubideen galdagarritasun judiziala (edo justiziabilitatea), EESKen Batzordeak baieztatu du 2.1 artikuluko erreferentzian "bide egoki guztien" mendekotzat jo litekeela:

*«Itunean ez dago aitorturiko eskubiderik sistematariko gehien-gehienetan behintzat justiziabilitate-alderdi esanguratsu batzuk badituztela jo ezin denik. (...) Beraz, definizioz auzitegien esparrutik kanpo kokatuko lituzkeen eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen sailkapen zurrun bat egitea arbitrarioa eta bateraezina litzateke eskubideak (...) banaezinak eta elkarren mendekoak direla dioen printzipioarekin».*<sup>25</sup>

<sup>23</sup> EESKen Batzordea, 3. *Ohar Orokorra*, 1990, 9. paragrafoa; Giza Eskubideen aldeko goi-mandataria, *Eskubide ekonomiko sozial eta kulturaleri buruzko araudiaren aplikazioari buruzko txostena*, NBE: E/2009/90 dok., 2009ko ekainaren 8a, 15. paragrafoa.

<sup>24</sup> Helen Potts, *Accountability and the Right to the Highest Attainable Standard of Health*, University of Essex: Human Rights Centre, 2008, 13-30. or.

<sup>25</sup> EESKen Batzordea, 9. *Ohar Orokorra*, 1998, 3 eta 10. paragrafoak.



EESKen justiziabilitatea ez da aieru teoriko huts bat. Jadanik bada kontinente guztietako herrialde askotako epaitegietan egindako eskubide horien aitortpen eta aplikazioaren etsenpluen bilduma bat.<sup>26</sup> Gainera, azterlan enpiriko oraintsukoenek baieztatzen dute inguruabar jakin batzuetan eskubide sozioekonomikoei buruzko auzipetze estrategikoak ondorio positibo bat izan dezakeela, kasu konkretuaz harago eta gizartean baztertuta dauden biztanleria-sektore handietan.<sup>27</sup>

Espanian, ordea, EESKen justiziabilitatea hainbat oztopok blokeatua dago. Espainiako Konstituzioak beste eskubide batzuei baino babes-berme gutxiago ematen die EESKei, hezkuntzarako eskubidea alde batera utzita. Konstituzioko 53.3 artikulua ezartzen duenez, osasunerako eskubidea (43. artikulua) eta etxebizitzarako eskubidea (47. artikulua) «politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidariak» dira, eta soil-soilik berorien lege-garapenarekin bat etorri gaitezke horien galdagarritasuna eta justiziabilitatea.<sup>28</sup> Praktikan, «hala estatuko nola erkidegoetako legeriak eta politikek ez dute zehazten, oro har, eskubidearen edukia, ez eta horri norik erantzun dion ere. *Eta jakinekoa da edukia garbi ez duten eskubideak erraz urra daitezkeela, nekez galda daitezkeela eta aukera gutxiago dagoela justiziaren aurrean erreklamatzeko*».<sup>29</sup>

Konstituzioko oinarriko eskubideen mailaketaren ondorioak batez ere agerian geratzen dira krisi ekonomikoko garai hauetan. Urrutirago joan gabe, *Osasun Sistema Nazionalaren (SNS) iraunkortasuna bermatzeko eta prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko premia neurri buruzko apirilaren 20ko 16/2012 Lege-dekretuko* zioen azalpenean<sup>30</sup>, Espainiako Gobernuak lege-dekretuaren tresna arauemailea erabili izana hauxe esanez justifikatzen du: osasunerako eskubidea denez gero, 86. artikuluko konstituzio-betekizuna «*erlaxatu egiten da, Konstituzioko I. Tituluko III. Kapituluko politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidari bat delako*».<sup>31</sup>

<sup>26</sup> Esate baterako, International Commission of Jurists, *Courts and the Legal Enforcement of Economic, Social and Cultural Rights: Comparative Experiences of Justiciability*, 2008. Ikus EESKetarako Nazioarteko Sareko jurisprudentzia-datuak ere: [http://www.escri-net.org/caselaw/caselaw.htm?attribLang\\_id=13441](http://www.escri-net.org/caselaw/caselaw.htm?attribLang_id=13441)

<sup>27</sup> Daniel M. Brinks y Varun Gauri, *The Law's Majestic Equality? The Distributive Impact of Litigating Social and Economic Rights*, Policy Research Working Paper 5999, The World Bank Development Research Group, 2012ko martxoa.

<sup>28</sup> Konstituzioko 53.3 artikulua: «*Hirugarren kapituluaren aitortutako printzipioak onartu, errespetatu eta babestu egin behar dira, eta legeria positiboak, eginera judizialek eta botere publikoen jardunak horietan izango dituzte kontuan. Jurisdikzio arruntean halakoak alegatu ahal izateko, nahitaezkoa da haiek garatzen dituzten legeak aintzakotzat hartzea*».

<sup>29</sup> Amnesty International, *Derechos a la intemperie: Obstáculos para hacer valer los derechos económicos, sociales y culturales en España, 2011, 8. or.*

<sup>30</sup> BOE, 98. zk., 2012ko apirilaren 24koa.

<sup>31</sup> Konstituzioko 86.1 artikulua: «*Aparteko eta presazko beharrezko dagoenetan, Gobernuak behin-behineko lege-xedapenak eman ditzake, lege-dekretuen forma hartuz; horiek ezingo dute eraginik sortu estatuaren oinarriko erakundeei buruzko antolamenduan, Lehenengo Tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, autonomia-erkidegoen araubidean, ezta hauteskundeei buruzko zuzenbide orokorrean ere*».



Kontuak eman beharrekin eta ordainerako eskubidearekin batera —ordain judiziala barne dela—, honako hauek ere printzipio garrantzitsuak dira: *gardentasuna, informaziorako sarbidea eta parte-hartze aktiboa*. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak «informazioa jasotzeko askatasuna» nozioaren interpretazio hedakor bat egin du progresiboki (Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 10.1 artikulua), eta aitortu du badela informazioa eskuratzeko eskubide bat.<sup>32</sup> Ozeano Atlantikoaren beste aldean, Giza Eskubideen Amerika Arteko Gortea oso irekia agertu da goraka egiten ari den eskubide horrekin:

*«Estatuaren jarduna kudeaketa publikoaren publizitate eta gardentasunaren printzipioek gidatu behar dute; beraz, haren jurisdikziopean dauden pertsonen estatu-kudeaketen kontrol demokratikoa egin dezakete eta funtzio publikoak behar bezala betetzen ari ote diren eztabaidatu, ikertu eta hausnar dezakete. Estatuaren kontrolpean dagoen interes publikoko informazioa eskuratzeko bide eman dezake kudeaketa publikoan parte hartzeko, informazio hori eskuratuta egin daitekeen gizarte-kontrolaren bidez. (...) Iritzi publikoaren bidez egiten den kontrol demokratikoa estatu-jardueren gardentasuna bultzatzen du eta funtzionarioen kudeaketa publikoaren gaineko erantzukizuna sustatzen du. Horregatik, pertsonen kontrol demokratikoa egin ahal izan dezaten, Estatuak bermatu egin behar du bere kontrolpean duen interes publikoko informazioa eskuratu ahal izatea. Kontrol demokratiko hori baliatzeko modua emanda, pertsonen gizartearen interesetan gehiago parte hartu ahal izatea sustatzen da».*<sup>33</sup>

Parte-hartze aktiboari dagokionez, bi noranzkoko da gizarte-eskubideen babes-maila egoki batekin duen erlazioa. Batetik, biztanleen parte-hartze aktiboa botere publikoek kontuak emateko duten prozesu ireki eta zabal baten parte da. Hau da, botere publikoek giza eskubideei dagokienez dituzten betebeharrak beteko badituzte, herritarren parte-hartze aktiboa errespetatu eta sustatu behar dute. Eta, bestetik, gizarte-eskubideak neurri egokian eskuratzeko beharrezko baldintza da, nahiz eta aski ez izan, parte-hartze politikoa askatasunez eta berdintasun-baldintzetan egin dadin. Gizarte-bazterketa, beraz, bi gabeziaren emaitza da: batetik, oinarrizko gizarte-eskubideak (hezkuntza, osasuna, etxebizitza eta abar) eskuratu ezina, eta, bestetik, erabakiak hartzeko prozesuen ikusezintasuna eta prozesu horietan parte hartu ezina. Eskubide sozioekonomikoak gauzatzeko politika publikorik ez izatea oztopo bat da baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak komunitateko kide senti daitezen, eta, ondorioz, hondatu egiten du prozesu demokratikoa.

<sup>32</sup> GEEA, *Társaság a Szabadságjogokért Hungariaren aurka* kasua, 2009ko apirilaren 14ko Epaia, 35-36. eta 38. paragrafoak.

<sup>33</sup> Giza Eskubideen Amerika Arteko Gortea, *Claude Reyes eta beste batzuk Txileren aurka* kasua, 2006ko irailaren 19ko Epaia, 86-87. or.



#### 4. Praktikan, zer esan nahi du politika publikoek giza eskubideen printzipioetan oinarritu behar dutelako ideiak?

##### A. Barne legediak giza eskubideen oinarrizko edukia bermatu behar du, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearekin bat etorritz.

Aurrez adierazi dugu jadanik Konstituzioko 10.2 artikulua zer xedatzen duen:

*«Konstituzioak aitortzen dituen oinarrizko eskubideei eta askatasunei buruzko arauak interpretatzeko, kontuan hartuko da Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, bai eta gai berberen inguruan Espainiak berretsi dituen nazioarteko tratatuak eta itunak ere».*

Konstituzio Auzitegiak ondorioztatu duenez, paragrafo horrek ez die konstituzio-mailarik ematen giza eskubideen nazioarteko tratatuetan jasotako eskubideei, baina, hala ere, *«gure Konstituzioan ere ezartzen ez diren arte (... ) horko manuak tratatu edo hitzarmen horien edukiarekin bat etorritz interpretatu behar dira, eta, beraz, praktikan, eduki hori gure Konstituzioko I. tituluko bigarren kapituluak adierazten duen eskubide eta askatasunen eduki konstituzionalki aitortu bat bihurtzen da, nolabait».*<sup>34</sup>

Eskubide zibil eta politikoei dagokienez, EZPNiko 2.2 artikuluaekin bat etorritz, botere publikoek beharrezko neurriak hartu behar dituzte nazioarteko tratatu horretan aitortutako eskubideak estatu barruan eragingarriak izango direla bermatzeko.

*«Alderdi-estatu bakoitzak konpromisoa hartzen du, bere konstituzio-prozedurekin eta Itun honetako xedapenekin bat etorritz, beharrezko neurriak hartzeko, lege-xedapenak edo Itun honetan aitortuta dauden eta beste lege-xedapen edo beste izaera bateko xedapenek bermatzen ez dituzten beste izaera bateko xedapenak emateko.*

Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak, manu horretan jasotako betebeharrari dagokionez, hauxe adierazi du: *«Ez du onartzen erreserbarik eta berehalakoa da. Betebehar hori bete ez izana ezin da justifikatu Estatuaren barneko kontsiderazio politiko, sozial, kultural edo ekonomikoak aipatuta».*<sup>35</sup>

Gizarte-eskubideei dagokienez, nahiz eta EESKNik ez duen zehazten zein diren bide egokiak ituneko arauak barne izaerarekin aplikatzeko, *«juridikoki lotesleak diren giza eskubideei buruzko nazioarteko arauak zuzenean eta berehala aplikatu behar dira alderdi-estatu bakoitzeko barne-sistema juridikoan; hala, interesdunei bide emango zaie beren eskubideen babesa epaile eta auzitegi nazionaletan erreklamatzeko»;* giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidea etxekotzeko

<sup>34</sup> Konstituzio Auzitegiaren 36/1991 Epaia, otsailaren 14koa, 5. Oinarri Juridikoa.

<sup>35</sup> Giza Eskubideen Batzordea, 31. Ohar Orokorra: Ituneko estatu-alderdiei ezarritako betebehar juridiko orokorraren izaera, NBE: CCOR/C/21/Rev.1/Add.13 dok., 2004ko maiatzaren 26koa, 14. paragrafoa.



hautatutako bideek «egokiak izan behar dute», EESKNItik eratorritako «betebeharrak erabat betetzearekin koherenteak diren emaitzak ekartzeko».<sup>36</sup>

Botere publikoek gaur egungo krisi ekonomikoaren testuinguruan hartutako doikuntza-neurrien jakitun, Nazio Batuetako EESKen Batzordeak, aurtengo maiatzeko bere azken oharretan, hauxe gomendatu zion Espainiari:

*«Berma dadila hartutako austeritate-neurri guztiak Ituneko eskubide guztien gutxieneko funtsezko edukiarekin bat etor daitezzen, eta har daitezela beharrezko neurri egoki guztiak funtsezko eduki hori edozein inguruabarretan babesteko, batez ere gizarte-egoera ahulean dauden edo baztertuta dauden pertsonentzat eta taldeentzat».*<sup>37</sup>

Botere publikoek bermatu behar dute Konstituzioan eta nazioarteko zuzenbidean ezarritako eskubideen lege-garapenak giza eskubide guztien funtsezko edukia errespetatzen duela eta bat datorrela giza eskubideen nazioarteko zuzenbideko parametro bermatzaileenekin.

**B. Berdintasuna ez da printzipio kontu bat soilik; horrez gain, beharrezkoa da sistema ekonomikoaren funtzionamendu ona ziurtatzeko.**

Berdintasun formal eta materiala Zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoaren nahiz giza eskubideen nazioarteko Zuzenbidearen funtsezko balio bat da. Berdintasunak, bere adierazpenik zabalenean, botere publikoak behartzen ditu, ez bakarrik beharrezko neurriak hartzera legez diskriminaziorik ez dela egingo bermatzeko, baizik eta baita giza eskubide guztien gauzatze progresibo eta erabatekoa galarazten duten oztupoak kentzera ere. Berdintasunaren interpretazio zorrotz eta murriztaile bat eginda, ezinbestean onartuko genuke, gogo onez onartu ere, Anatole France idazle ospetsuak, 1921eko Litetaratura Nobel saridunak, ateratako ondorioa: «Legeak, bere zintzotasun bikainean, debekatu egiten die hala aberatsei nola behartsuei zubipean lo egitea, kalean eskean aritzea eta ogia lapurtzea».

Berdintasunaren ekarpena ez da mugatzen printzipioen eremura. Berdintasuna osagai beharrezkoa da, gainera, merkatu-ekonomiaren sistema ekonomikoa bideragarria izan dadin.<sup>38</sup> Azken mendean «kapitalismo demokratikoa» deiturikoaren herrialdeetan izan diren bi krisi zorrotzenen aurretik, hots, 1930eko urteetako Depresio Handiaren eta gaur egungo krisiaren (2007-2008) aurretik, desberdintasuna bat-batean areagotu da. Lansarien balio errealek modu jarraituan gain behera egin dezaten uzteak asaldatu egiten ditu kontsumoaren eta ekoizpenaren arteko oreka ekonomikoa ziurtatzeko beharrezkoak diren mekanismoak. Aberastasun-metaketa progresiboa gutxi batzuen esku egoteko bide

<sup>36</sup> EESKen Batzordea, 9. Ohar Orokorra, 1998, 4-5. paragrafoak.

<sup>37</sup> EESKen Batzordea, Azken Oharrak: Espainia, NBE: E/C.12/ESP/C0/5 dok., 2012ko maiatzaren 18koa, 8. paragrafoa.

<sup>38</sup> Konstituzioko 38. artikulua: «Enpresa-askatasuna aitortzen da merkatu-ekonomiaren eremuan. Botere publikoek bermatu eta babesten dituzte haren egikaritzea eta ekoizgarritasunaren defentsa, ekonomia orokorraren eskakizunei kasu eginez, eta, hala denean, plangintza kontuan izanik».





ematen duen eredu ekonomikoak konbinazio arriskutsu bat dakar: deflazioa eskarian, finantza-aktiboen apreziazioa eta ekonomia produktiboaren gehiegizko mehartzea; horrek denak irteera zaileko krisi ekonomiko luze eta mingarri batera darama.

<sup>39</sup> Enpirikoki frogatua dago desberdintasuna ez dela lagungarria ekonomia hazteko; ez dago froga fede-emailerik ongizate-estatu garatuenean ere (eskandinaviar joerakoa) berdintasunaren eta eraginkortasunaren artean funtsezko kontraesan bat badela erakusten duenik.<sup>40</sup>

Espainiaren kasu konkretuan, erlazio esanguratsua dago desberdintasun-maila handiaren (% 34, Gini koefizientea) eta zerga-bilketa publikoak duen maila txikiaren artean (BPGd-aren % 36a, 15-EBko txikiena, Irlanda alde batera utzita), eta horrek iradokitzen du botere publikoek ahalegin handiagoa egin lezaketela erabilgarri dituzten baliabide guztiak mugiarazteko, diru-sarreretan dagoen desberdintasuna gutxitzeko eta eskubide sozioekonomikoak progresiboki gauzatzeko bidean aurrera egiteko.<sup>41</sup>

Giza eskubideen printzipioen ikuspegitik, beharrezkoa da berdintasuna bermatzeko politika publikoak ezartzea, berdintasuntzat gaitasun eta autonomia pertsonalak eta gizarte demokratiko baten balio egituratzailea hartuta. Ikuspegi ekonomizista batetik, beharrezkoa da ulertzea desberdintasun gero eta handiagok zalantzan jartzen dutela eredu ekonomikoaren bideragarritasuna. Berdintasun sozioekonomikoa, gainera, balio bat da berez, bide bat sistema ekonomiko orokorraren funtzionamendu ona ziurtatzeko.

C. *Gizarte-politikak ez dira soilik funtsezkoak eskubide sozioekonomikoak lortuko direla bermatzeko; horrez gainera, ekonomikoki produktiboak eta errentagarriak dira.*

Gizarte-politikak beharrezko tresnak dira pertsona guztiek dagozkien eskubide sozioekonomikoak eskuratu ahal izan ditzaten. Botere publikoek beharrezko neurriak hartu behar dituzte gizarte-laguntzarako eskubidea modu eragingarrian baliatu ahal delako bermatzeko. Eskubide horrek, beste edozeinek baino gehiago, gizarte-egoera ahulenean dauden taldeei eta pertsonari arreta berezia ematea exijitzen du. Espainiari buruzko bere azken txostenean, Gizarte Eskubideen Europako Batzordeak, Espainiak berretsiriko 1961eko Europako Gizarte Gutuna betetzen dela zaintzeko arduradunak<sup>42</sup>, ondorioztatu zuen Espainiaren egoera ez

---

<sup>39</sup> Stewart Lansley, *The Cost of Inequality: Why Economic Equality is Essential for Recovery*, Gibson Square Books, 2012.

<sup>40</sup> James Pontusson, *Inequality and Prosperity: Social Europe vs. Liberal America*, Cornell University Press, 2005. Arthur M. Okun-ek proposatutako tesi sonatuaren aurka, *Equality and Efficiency: Okun, Equality and Efficiency: The Big Tradeoff*, Brookings Institution Press, 1975.

<sup>41</sup> Eurostaten datuen arabera. Center for Economic and Social Rights, *Visualizing Rights: A Snapshot of Relevant Statistics on Spain*, 2012, 7. or.

<sup>42</sup> BOE, 153. zk., 1980ko ekainaren 26koa.



datorrela bat Gutuneko 13.1 artikularekin bat. Horren arabera, estatuek konpromiso hauek dituzte:

*«Behar beste baliabiderik ez duten eta beren ahaleginez lortzeko edo beste iturri batzuetatik, batez ere Gizarte Segurantzako araubideren bateko prestazio-bide batetik, jasotzeko moduan ez dauden pertsonak laguntza egoki bat lortu ahal izango dutela zaintzea eta gaixorik badaude behar duten zaintza izango dutela zaintzea».*<sup>43</sup>

Interes orokorreko zerbitzuak, eskubide sozioekonomikoak gauzatzeko bide ematen duten tresna ez ezik, garapen ekonomikorako, enplegu-sorkuntzarako, oparotasunerako eta gizarte-kohesiorako iturri ere badira. Kontuan izan behar da gizarte-politkarik ez izateak kostu ekonomiko handiak dakartzala produktibitateko, enplegurako eta hazkunderako.<sup>44</sup> Kalitateko gizarte-zerbitzuak garestiak dira, baina bada gauza bat askoz ere garestiagoa: ez edukitzea.

Tradizioan, Espainiako gizarte-gastua urria izan da eta ez da bat etorri azken hamarkadetan izandako hazkunde ekonomikoarekin.<sup>45</sup> Gizarte Zerbitzuetako Zuzendari eta Kudeatzaileen Elkartearen DEC indizeak erakusten duen bezala, Estatu osoa kontuan hartuta gizarte-gastua oso desberdina da autonomia-erkidego batetik bestera, baina, edonola ere, ez dago erlaziorik batere erkidegoetako defizit-mailaren eta gizarte-zerbitzuen garapen-mailaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoak inbertitzen du diru gehien gizarte-zerbitzuetan (773 euro pertsona eta urteko), eta garapen-maila hori «ertain» gisa kalifikatua dago (6,7/20), soilik Gaztela eta Leonen gainditzen duela (6,9).<sup>46</sup>

Batez ere krisi ekonomikoko garaian, eta kontuan hartuta krisiaren eraginak azaleratu egiten direla batez ere langabezia-tasa izugarri handiaren bidez, botere publikoek gizarte-zerbitzuen arloan lanpostuak sortzeko mandatu konstituziogile gisa (edo behintzat behar besteko estaldura juridiko gisa) interpreta lezakete Konstituzioko 35. artikulua.<sup>47</sup>

<sup>43</sup> Comité Européen des Droits Sociaux, Conclusions XIX-2 (2009, Espagne), Articles 3, 11, 12, 13 et 14 de la Charte et Article 4 du Protocole additionnel, 2010eko urtarrila, 23-24. or.

<sup>44</sup> Didier Fouarge, Costs on non-social policy: *Towards an economic framework of quality social policies – And the costs of not having them*, Report for the Employment and Social Affairs DG – European Commission, 2003.

<sup>45</sup> Vicenç Navarro, *El Subdesarrollo Social en España: Causas y Consecuencias*, Anagrama, 2006; Vicenç Navarro eta Jillian Reynolds, “La inversión en Protección Social en España en el contexto de la Unión Europea. El reto del déficit social”, in Vicenç Navarro (dir.), *La situación social en España III*, Biblioteca Nueva, 2009, 31-135. or.; Eurostat, *In 2009 a 6.5 % rise in per capita social protection expenditure matched a 6.1 % drop in EU-27 GDP*, Statistics in focus 14/2012, 2012ko urtarrila.

<sup>46</sup> Espainiako Gizarte Zerbitzuetako Zuzendari eta Kudeatzaileen Elkartea, *Índice DEC – Índice de Desarrollo de los Servicios Sociales*, 2012. (Euskal Autonomia Erkidegoari buruzko kapitulua, 107-112. or.).

<sup>47</sup> Konstituzioko 35. artikulua: «1.- Espainiar guztiek lan egiteko eginbeharra dute, eta lanerako eskubidea dute, lanbide edo ogibidea askatasunez aukeratzeko eta lanean igotzeko eskubideak dituzte, eta beren beharriazanak eta beren familiarenak asetzeko adina ordainsari jasotzeko eskubidea ere, inoiz sexu-arrazoiengatik bereizkeriarik gertatu gabe. 2. Legeak langileen estatutu bat arautuko du».



Enplegua sustatzeko politikekin batera, beharrezkoa da Europar Batasuneko erakundeek ildo berean bultzada ematea. Alde horretatik, beharrezkoa litzateke Europako Banku Zentralaren mandatu kontserbadore eta erredukzionista berrikustea, hots, “prezioen egonkortasuna mantentzea” eta “Batasuneko politika ekonomiko orokorreari babesa ematea”.<sup>48</sup> Beste banku zentral batzuk, hala nola Estatu Batuetako Erreserba Federalak, mandatu zabalago bat daukate, eta horien barnean sartzen da enpleguaren babesa.

Interes orokorreko zerbitzuak zuzenean eman daitezke, edo hirugarren sektore baten edo beste entitate pribatu batzuen bidez, baina erantzukizun juridikoa beti izango da botere publikoena: *“Jarduteko baimena duen estatu-ahalmeneko entitate publiko edo pribatu ororen ekintza Estatuari zuzenean egotz dakizkiokeen egitateen erantzukizun bat badelako ustean kokatzen da, zerbitzuak Estatuaren izenean ematen direnean gertatzen den bezala”*.<sup>49</sup>

Gizarte-zerbitzuen unibertsaltasunak esan nahi du botere publikoek bermatu egin behar dutela pertsona guztiek eskubide guztiak erabat baliatu ahal izatea. Gizarte-eskubideak herritar guztientzat dira eskubide; ez dira pribilegio batzuentzat eta bazter-prestazio beste batzuentzat. Eskubideen ikuspegitik funtsezko printzipio bat izateaz gain, unibertsaltasuna giltzarri da Estatu sozialaren bideragarritasuna ziurtatzeko ere. Enpirikoki frogatua dago gizarte-prestazioak pobrezian dauden pertsonen soilik emateak ahuldu egin ohi duela erdi-mailako klaseek ongizate-estatuari ematen dioten laguntza eta berorren eremua murriztu egin ohi dela.<sup>50</sup>

Botere publikoek “bide egoki guztietatik” erabil ditzaketan “baliabide guztiak” erabili arte gauzatu behar dituzte eskubide sozioekonomikoak (EESKNIko 2.1 artikulua). Helburu horrek, zeinaren inguruan ibili behar baitute gizarte-politikek, ez du exijitzen gizarte-prestazioak modu berean eman behar zaizkienik pertsona guztiei. Esate baterako, bereiz litezke diruzko gizarte-prestazioak (gutxieneko errenta) eta gauzaz ematen direnak (osasun-laguntza). Lehenak, inguruabar jakin batzuetan, oso gizarte-egoera ahulean dauden pertsonentzat gorde daitezke, eta bigarrenak, ostera, berdin aitortu beharko lirateke, unibertsal diren aldetik. Nolanahi ere, botere publikoek frogatu behar dute, eta ez herritarrek, hartutako neurri eta politiketan erabilgarri dauden baliabide guztiak erabili direla, eskubideak oinarrizko maila batean gozatzea bermatzen dutela eta egokiak direla pixkanaka eskubide sozioekonomikoak maila egoki batean betetzeko.

---

<sup>48</sup> Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Ituneko 282.2 artikulua: *«Europako Banku Zentralaren artezkaritza-organoek zuzenduko dute BZES (Banku Zentralen Europako Sistema). Prezioen egonkortasunari eustea izango da BZESren helburu nagusia. Helburu horri kalterik egin gabe, Batasunaren ekonomia-politika orokorreari ere laguntza emango die, Batasunaren helburuak lortzen laguntzeko»*.

<sup>49</sup> Giza Eskubideen Amerika Arteko Gortea, *Ximenes Lopes Brasiles aurka* kasua, 2006ko uztailaren 4ko Epaia, 87. paragrafoa.

<sup>50</sup> James Pontusson, *Inequality and Prosperity*: 2005, 194. or., 1980ko urteetan Erresuma Batuan egindako gizarte-erreformei dagokienez.



D. Informazio berezia eman behar da eskubide sozioekonomikoen eskuratzemailari buruz.

Giza eskubideak unibertsaiki aitortuak direnez, beharrezkoa da botere publikoek datu bereziak ematea, biztanleek eskubide sozioekonomikoak zenbateraino lortu eta gozaten dituzten ebaluatzeko. Ildo horretan, berriki Nazio Batuetako EESKen Batzordeak gomendio hauxe egin dio Espainiari:

*“Bildu dadila informazio estatistikoa berezirik, pertsona eta talde kaltetuak identifikatzeko xedearekin, eta areagotu dadila ahaleginen eraginkortasuna, haien eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak babesteko”.*<sup>51</sup>

Gizarte-bazterketari arlo ugariatik begiratu behar zaio. Esate baterako, FOESSA Fundazioak 35 adierazle haztatu darabiltza bere eskalan. Adierazle horiek, besteak beste, alderdi hauei dagozkie: enplegua, diru-sarrerak, ondasun-gabetzea, parte-hartzea, hezkuntza, etxebizitza, osasuna, portaera gatazkatsuak eta laguntza-sareak.<sup>52</sup>

Giza eskubideak berdintasunez gozatzeko, bereziki begiratu behar zaio gizarte-egoera ahulenean dauden taldeen egoerari. Pertsona batzuei beren izaeratik edo talde jakin bateko kide izateagatik eskubide batzuk mugatzea edo ukatzea haien oinarritzko eskubidea urratzea da, eta, gainera, gizarte osoa ere arriskuan jartzen du. Osasunerako eskubideari dagokionez, Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentziak gatzigu hauxe egin die estatu kideei: *“Egoera irregularrean dauden pertsona migratzaileei osasun-laguntzarik ez emateak arriskuan jartzen du haien bizitza eta ongizatea, areagotu egiten du etorkizunean izan ditzaketen premiazko tratamenduen kostua eta osasun publikoarentzat arriskutsu ere gerta liteke”.*<sup>53</sup> Eskubide horrexen inguruan, EESKen Batzordeak hauxe gogorarazi du: *“Estatuak osasunerako eskubidea errespetatzeko betebeharra dute; bereziki, ez dute ukatu edo mugatu behar pertsona guztiek, horien barnean direla presoak edo atxilotuak, gutxiengoak, ordezkariak, asiloa eskatu dutenak zein legez kanpoko etorkinak (sic), osasun-zerbitzu prebentibo, sendagarri eta aringarriak modu berean eskuratzeko duten eskubidea”.*<sup>54</sup>

Kontuan hartuta berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioek gidatu behar dituztela giza eskubideen arloko politika publikoak, giza eskubideen adierazleen erabilera guztiz da garrantzizkoa eskubide horien babes-mailaren eta aurrerapen progresiboaren jarraipena egiteko.

<sup>51</sup> EESKen Batzordea, *Azken Oharrak: Espainia*, 2012, 8. paragrafoa.

<sup>52</sup> FOESSA Fundazioa, VI Informe sobre exclusión social en España. *Resumen*, FOESSA, 2008, 52. or.

<sup>53</sup> Fundamental Rights Agency, *Migrants in an irregular situation: access to healthcare in 10 European Union Member States*, Publications Office of the European Union, 2011, 7. or.

<sup>54</sup> EESKen Batzordea, *14. Ohar Orokorra: Osasuna ahalik eta mailarik gorenean gozatzeko eskubidea*, NBE: E/C.12/2000/4 dok., 2000ko abuztuaren 11, 34. paragrafoa.



### E. Beharrezkoa da politika publikoek giza eskubideetan nola eragiten duten ebaluatzea.

Eskubide sozioekonomikoak progresiboki gauzatzeko betebeharraren ondorio zuzen gisa, ez da printzipio onargarria eskubide horiei dagokienez lortutako babes-maila gutxitzen duten neurriak hartzea. Betiere botere publikoek frogatu behar dute eskubideen gozamenean egindako murrizketak justifikatuta daudela, eskubide sozioekonomikoen argitan eta erabilgarri dauden baliabide guztiak erabili direlako.

Neurri atzerakorrak ezartzeko debekuak garrantzi berezia hartzen du ekonomia krisian den eta gastu publikoa murrizten den garaian. Administrazio batek eskubide aldetik neurri atzerakorrak hartzeko asmoa badu, azterlan bat egin eta argitaratu beharko du neurri horiek itxuraz giza eskubideetan nola eragingo duten ebaluatzeko.

Gizarte-eskubideen arloan, erabilgarri dauden baliabide guztiak modu eragingarrian erabil ote diren ebaluatzeko, xeheki aztertu behar dira diru-sarrera publikoak, gastu publikoaren banaketa, diru-politika, finantza-merkatuaren erregulazioa, defizit publikoaren eta zor publikoaren kudeaketa eta garapenerako laguntza ofiziala.<sup>55</sup>

Giza eskubideen gaineko eraginaren ebaluazioak baditu erronkak, baina erronka horiek metodologikoak dira, eta ez kontzeptualak. Eraginaren ebaluazioak badu zerikusia politika publikoen diseinuarekin. Jadanik badira hainbat tresna metodologiko azter litezkeenak eta, hala badagokio, botere publikoek partzialki txerta ditzaketenak giza eskubideetan nola eragiten duten ebaluatzeko. Esate baterako, ingurumenaren arloan, gaur egun ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa funtsezko tresna da baliabide naturalak zaintzeko eta ingurumena defendatzeko, prozedura administratiboetan beharrezko betekizun izateaz gain.<sup>56</sup> Beste etsenplu interesgarri bat generoaren gaineko ebaluazioa da, erkidegoko, estatuko eta konparatutako zuzenbidean garaturikoa.<sup>57</sup> EBren testuinguruan, 2011n Göteborgen eta Laekeneko egindako Europako Kontseiluen mandatuari jarraiki, Europako Batzordeak metodologia eta ikuspegi integratu batzuk ezarri zituen politika edo pieza arauemaile berriek ekonomian, gizartean edo ingurumenean ekar ditzaketen eraginak ebaluatzeko. Eraginaren ebaluazioaren xedea politiken kalitatea eta koherentzia hobetzea da, eta onuragarri gertatu behar

---

<sup>55</sup> Center for Women's Global Leadership, Maximum Available Resources and Human Rights: *Analytical Report*, Rutgers, 2011.

<sup>56</sup> *1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, Proiektuek Ingurumenean duten Eragina Ebaluatzeko Legearen testu bategina onartzen duena* (BOE, 23. zk., 2008ko urtarrilaren 26koa).

<sup>57</sup> Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea (EHAA, 42. zk., 2005eko martxoaren 2koa), eta Genero-eragina Ebaluatzeko Jarraibideak (EHAA, 51. zk., 2007ko martxoaren 13koa); emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoko 19. artikulua (BOE, 71. zk., 2007ko martxoaren 23koa); eta botere publikoen «berdintasunerako betebeharr orokorra» (general equality duty), Erresuma Batuko Berdintasunerako Legearen 149. Atalean jasotakoa (*Equality Act 2010*).



du horien gardentasunerako, komunikaziorako eta informaziorako; beraz, ez da hartu behar eztabaida politikoaren ordezkotzat.<sup>58</sup>

F. Kontuak eman beharrak eta eskubideak elkarren mendeko izateak berekin dakarte eskubide horien bermeak zabalkiro interpretatzea.

Kontuak ematea botere publikoen eta gizarte osoaren artean hitz egiteko prozesu ireki gisa hartu behar da. Horren bidez, lehenek erakutsi, azaldu eta justifikatuko dute nola bete dituzten giza eskubideen arloan dituzten betebeharrak, eta herritarrek, ostera, aukera izango dute administrazioak eskubide horiei dagokienez zer lehentasun dituzten jakiteko.

Mekanismo asko daude kontuak emateko: eraginaren ebaluazioa, parlamentu-txostenak, aurrekontu parte-hartzaileak, herriaren defentsa-bulegoak, baliabide judizialak antolatzea (justiziabilitatea) eta abar. Mekanismo horiek ez dira elkarren artean baztertzailak, baizik eta guztiz dira elkarren osagarri.

Erakundeen bermeekin batera (judizialak edo administratiboak), eskubide zibil eta politikoen erabilera herritarrek beren eskubideak defendatzeko eta babesteko duten tresna bihurtzen da.

*“Erakundez kanpoko bermeak edo berme sozialak, hain justu, eskubideak babesteko edo defendatzeko tresnak dira, baina batez ere, ezar daitezkeen bitartekotza instituzionalak alde batera utzita, titularren euren jardunen mende daude. (...) Eskuarki, horien bidez, eskubideek babestutako oinarrizko beharrizan eta interesak gogobete daitezela erreklamatzeko eskubide zibilak eta parte hartzeko eskubideak baliatzen dira”.*<sup>59</sup>

Gizarte demokratiko batean, hiri-espazioa ez da soilik zirkulazio-eremu bat, baizik eta baita parte hartzeko espazio bat ere.<sup>60</sup> Biltzeko eskubidea, Konstituzioko 21. artikuluan aitorturikoa<sup>61</sup>,

*“Aldi baterako elkarte baten bidez egindako adierazpen-askatasunaren agerraldi kolektibo bat da (eta) ideiak trukatzeko edo azaltzeko, interesak defendatzeko edo arazoak eta aldarrikapenak zabaltzeko teknika instrumental gisa jarduten du; beraz, printzipio demokratiko parte-hartzailearen bide bat da, eta, iritzi nagusiaren arabera, elementu egituratzaile hauek ditu: subjektua —pertsonek talde bat—, denbora*

<sup>58</sup> Europako Batzordea, *Eraginaren ebaluazioari buruzko jakinarazpena*, COM (2002) 276 azkena, 2002ko ekainaren 5a, 5. or.

<sup>59</sup> Gerardo Pisarello, *Los derechos sociales y sus garantías: Elementos para una reconstrucción*, Trotta, 2007, 123. or.

<sup>60</sup> Konstituzio Auzitegiaren 66/1995 Epaia, maiatzaren 8koa, 3. Oinarri Juridikoa.

<sup>61</sup> Konstituzioko 21. artikulua: «1. Bilerak baketsu eta armarik gabekoak egiteko eskubidea aitortzen da. Eskubide horren egikaritzak ez du aurretiazko baimenik behar. 2. Bilerak iraganbide publikoetan egiteko edo kale-agerraldiak burutzeko, agintariari alde aurretiko jakinarazpena egin behar zaio, eta hark halakoak debekatu ahal izango ditu, soilik, pertsona eta ondasunen arriskuaz, ordena publikoa asaldatzeko arrazoi oinarridunak daudenean.



—iraupen igarokorra—, helburua —xedearen zilegitasuna— eta errealitatea edo objektua —tokia—. <sup>62</sup>

Oinarrizko eskubideak direnez, modu murriztailean interpretatu behar dira biltzeko eta manifestazio publikoak gauzatzeko eskubideari jarritako mugak, eta muga horiek beti beharrezkoak eta proportzionalak izan behar dute. Estrasburgoko Auzitegiak aitortu duen bezala, definizioz, *“espazio publikoan egiten den edozein manifestaziok ekar ditzake nolabaiteko eragozpenak ohiko bizitzan, trafikoa etetea barne dela, eta manifestariak indarkeria-ekintzetan parte hartzen ez badute garrantzitsua da agintaritzaren publikoek bilera baketsuekiko halako tolerantzia bat agertzea”*. <sup>63</sup>

Bai kontuak ematearen ikuspegitik, eta bai eskubide guztiak elkarren mendekoak eta banaezinak direla oinarritzat hartuz, eskubide sozioekonomikoen justizialitatearekin eta beste berme instituzional-erako batzuekin batera, eskubide zibilak (batez ere, biltzeko eskubidea eta elkartzeko eskubidea) botere publikoek giza eskubideen inguruan dituzten betebeharrak beteko dituztelako berme bihurtzen dira herritarrentzat.

#### G. Informazioa eskuratzeko eskubidea bermatu behar da eta herritarren parte-hartze aktiboa sustatu.

Informazioa eskuratzeko eskubideak, “informazioa jasotzeko askatasunaren” ondoriozkoak (Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 10.1 artikulua), gardentasun handiagoa eta demokraziarik albat irekiena lortzeko etengabeko ahalegina exijitzen du.

Administrazioaren eta herritarren arteko harremanak eraginkorrakoak izateko, informazioaren eta jakintzaren teknologiek modua ematen dute politika publikoetan zeharka txertatzeko artxibo eta erregistro administratiboetan dagoen informazioa modu aktiboan zabaltzeko irizpideak. Informazioa eskuratzeko eskubideak printzipio hauek ditu oinarri: unibertsaltasuna, azkartasuna, sinpletasuna, doakotasuna, laguntza, publizitatea, gardentasuna, mugen interpretazio murriztailea eta arrazoitua, eta ezezko administrazio-erabakien aurka errekurtsioa jartzeko eskubidea. Parte-hartze aktiboaren printzipio gidariak honako hauek dira: unibertsaltasuna, proaktibitatea, laguntza, neutraltasuna, gardentasuna, erabaki irekia, segurtasun juridikoa, adiskidetzea eta gatazken prebentzioa, eta parte-hartze benetako, eraginkor eta esanguratsua. <sup>64</sup>

<sup>62</sup> Konstituzio Auzitegiaren 85/1988 Epaia, apirilaren 28koa, 2. Oinarri Juridikoa.

<sup>63</sup> GEEA, *Ashughyan Armeniaren aurka kasua*, 2008ko uztailaren 17ko Epaia, 90. paragrafoa.

<sup>64</sup> *Arartekoaren 6/2010 Gomendio Orokorra, abenduaren 30ekoa: Gardentasuna eta agiri publikoak eskuratzeko eskubidea. Bereziki, ingurumen informazioa eskuratzeko. Eta Arartekoaren 12/2011 Gomendio Orokorra, abenduaren 28koa: Demokrazia eta herritarrek parte hartzea. Bereziki, ingurumen-prozesuetan parte hartzea.*



*Irekia*<sup>65</sup> ataria eta halako ekimenak administrazio-jarduketan gardentasun handiagoa lortzeko pauso bat dira. Nolanahi ere, Nazioarteko Gardentasuna erakundeak 2010ean egindako autonomia-erkidegoen gardentasun-indizeak 14. postu apalean kokatzen du Euskal Autonomia Erkidegoa, 100 punturen gainean 57,5 emanda.<sup>66</sup> Foru aldundiei dagokienez, 2012an aztertutako 44 aldundietatik, Bizkaikoa buruan ageri zen (95 puntu), Arabakoa 14. lekuan (57,5), eta Gipuzkoakoa 29. lekuan (33,8). Estatuko batez besteko orokorra 48,9 puntukoa zen.<sup>67</sup> Estatu mailan, inondik ere deigarri eta kezkarri da Espainia izatea milioi bat biztanletik gorako Europako herrialde bakarra oraindik gardentasunari eta informazioaren sarbideari buruzko legerik ez duena, nahiz eta horretarako baden konstituzio-mandatu bat 1978tik.<sup>68</sup>

Parte-hartze aktiboaren printzipioaren garrantzia guztiz adierazgarria da Europar Batasuneko organoei dagokienez, geografikoki eta instituzionalki urrunago baitaude herritarrengandik. Erantzun egin behar zaie EBko erakundeek —batez ere Batzordeak eta Europako Banku Zentralak— duten gabezia demokratikoari buruzko zalantza eta kritika gero eta ugariagoi. Zehazki, 2012ko martxoan, EBko 25 estatu kidek "Zerga Ituna" deiturikoa ezarri izanak aldaketa handiak ekarri ditu; hain zuzen ere, austeritatea sakratutzat jo eta hainbat mekanismo ezarri ditu Europako Justizia Auzitegiaren bitartez esku hartzeko, baldin eta estatu kideren batek defizit estrukturalaren gehieneko muga gainditzen badu. Aldaketa horiek ez dira oraingo premiari erantzuteko; aitzitik, estrukturalak dira, eta errotik aldatzen dute EBren eta EBko estatuen datozen urteetarako ekonomia- eta zerga-politika. Horregatik, exijitzekoa zatekeen eztabaida publiko handiago bat.

Gobernantza onak exijitzen duenez, ziurtatu egin behar da pertsonen informazio xehatu eta garrantzizkoa izatea eta modu esanguratsuan eta berdintasun-baldintzetan parte hartzea haiei eragiten dieten erabakietan.

---

<sup>65</sup> [www.irekia.euskadi.net/](http://www.irekia.euskadi.net/)

<sup>66</sup> [http://www.transparencia.org.es/INCAU\\_2010/INDICE\\_INCAU.htm](http://www.transparencia.org.es/INCAU_2010/INDICE_INCAU.htm)

<sup>67</sup> [http://www.transparencia.org.es/INDIP/INDICE\\_INDIP.htm](http://www.transparencia.org.es/INDIP/INDICE_INDIP.htm)

<sup>68</sup> Konstituzioko 105. artikulua: «Legeak arautuko du: a) Herritarrei entzutea, zuzenean edo legeak aitortutako antolakuntza eta elkarten bidez, haiei dagozkien administrazio-xedapenak prestatzeko prozeduran. b) Herritarrak artxibo eta erregistro administratiboetara sartzera, salbu eta estatuen segurtasun eta defentsari, delituen ikerketari eta pertsonen bizitza pribatuari dagokienez. c) Administrazio-egintzak burutzeko prozedura, bidezkoa denean interesdunak esan beharrekoa entzutea bermatuz».

2012ko martxoaren bukaeran, Espainiako Gobernuak Gardentasunari, Informazio Publikorako Irisgarritasunari eta Gobernu Onari buruzko Lege Aurreproiektua aurkeztu zuen. <http://www.leydetransparencia.gob.es/>





## 5. Ondorioak

Azken mende erdian, gero eta aitorten eta onarpen handiagoa lortu da giza eskubideen inguruan. Alabaina, erretorikak orain eman behar ditu, bereziki, fruituak. Egoera jasanezina denean agertzen da giza eskubideen benetako balioa inola ere uko egin ezin zaion elementu gisa. Pentsamendu bakarra, teknokrazia eta merkatu desarautuen dogmak alde batera utzita, demokraziaren eta arlo publikoaren balioa erreklamatu behar dugu, hala *Ecclesiatic* (gizarteari kontuak ematen dizkieten erakunde publikoak) nola *Agoratik* (herritarrek parte hartzeko espazio publiko irekiak).

Botere publikoek krisi ekonomikoa giza eskubideen krisi ez bihurtzeko erantzukizun handia dute. Finantza-sistema onbideratzea, arrisku-prima gutxitzea eta defizitaren helburuak betetzea ezin dira egin giza eskubideen bizkar. Ekaitza denean baliarazi behar dute botere publikoek herritarren premiei erantzuteko lidergoa. Oraintxe da garaia erabakitzeke osasuna, etxebizitza, hezkuntza edo ideiak jendaurrean adieraztea giza eskubideak ote diren edo ekonomiaren oparoaldietarako erreserbatutako pribilegio hutsak diren.

Aski jakina da txinatar ideogramak bi esanahi konbinatzen dituela "krisi" hitzean: arriskua eta aukera. Arduradun publikoen esku dago aukera hori baliatzea askatasuna eta duintasuna inoiz baino kementsuago aldarrikatzeko.

Pertsona guztiak, hala izate hutsagatik, eskubide besterenezin batzuen titular direlako ideia, gaur-gaurkoz, eskuarki onartzen da gizarte demokratikoetan eta gure ordenamendu juridikoak horixe du oinarri. Ideia horrek, erakargarri izateaz gain, hainbat ondorio praktiko ditu eta oinarrizko betebeharrak batzuk sortzen ditu botere publikoentzat.

Krisi-garaietan inoiz baino gehiago, botere publikoek giza eskubideen **printzipio** hauek izan behar dituzte gidari politika publikoak diseinatzeko orduan:

- Giza eskubideak unibertsalak, banaezinak eta elkarren mendekoak dira.
- Berdintasuna eta bereizkeriarik eza dira giza eskubideen sistema osoaren elementu egituratzailea.
- Giza eskubideen inguruko betebeharrak hirutarikoak dira. Botere publikoek eskubide sozioekonomikoak errespetatu, babestu eta bete edo gauzatu behar dituzte.
- Eskubide sozioekonomikoak pixkanaka gauzatu behar dira, "bide egoki guztietatik" erabilgarri dauden "baliabide guztiak" erabili arte.
- Eskubide sozioekonomikoei loturiko neurri atzerakorrak onartezinak dira, printzipioz
- Botere publikoek beren ekintzen kontuak eman behar dituzte, eta ordainerako, informazioa eskuratzeko eta herritarrek modu aktiboan parte hartzeko eskubidea bermatu behar dute.



**Praktikan**, printzipio horiek gomendio hauek dakartzate berekin:

- Konstituzioan eta nazioarteko Zuzenbidean jasotako eskubideen lege-garapenak errespetatu egin behar du giza eskubide guztien funtsezko edukia eta bat egin behar du giza eskubideen nazioarteko Zuzenbidearen parametro bermatzaileenekin.
- Politika publikoek berdintasuna bermatu behar dute, berdintasuntzat gaitasun eta autonomia pertsonalak eta gizarte demokratiko baten balio egituratzailea hartuta. Gainera, berdintasun sozioekonomikoa balio bat da berez, bide bat sistema ekonomiko osoaren funtzionamendu ona ziurtatzeko.
- Gizarte-politikak beharrezko tresnak dira pertsona guztiek dagozkien eskubide sozioekonomiko guztiak eskuratu ahal izan ditzaten. Eskubide sozioekonomikoak gauzatzeko bide ematen duten tresnak izateaz gain, garapen ekonomikorako, enplegu-sorkuntzarako, oparotasunerako eta gizarte-kohesiorako iturri ere badira.
- Giza eskubideak unibertsaiki aitortuta daudenez, beharrezkoa da botere publikoek datu bereiziak ematea, biztanleek eskubide sozioekonomikoak zenbateraino lortu eta gozaten dituzten ebaluatzeko.
- Betiere botere publikoek frogatu behar dute eskubideen gozamenen egindako murrizketak justifikatuta daudela, eskubide sozioekonomikoen argitan eta erabilgarri dauden baliabide guztiak erabili direlako. Administrazio batek eskubide aldetik neurri atzerakorrak hartzeko asmoa badu, azterlan bat egin eta argitaratu behar du neurri horiek itxuraz giza eskubideetan nola eragingo duten ebaluatzeko.
- Bai kontuak ematearen ikuspegitik, eta bai eskubide guztiak elkarren mendekoak eta banaezinak direla oinarritzat hartuz, eskubide sozioekonomikoen justiziabilitatearekin eta beste berme instituzional-erako batzuekin batera, eskubide zibilak (batez ere, biltzeko eskubidea eta elkartzeko eskubidea) botere publikoek giza eskubideen inguruan dituzten betebeharrak beteko dituztelako berme bihurtzen dira herritarrentzat.
- Gobernantza onak exijitzen duenez, ziurtatu egin behar da pertsonen informazio xehatu eta garrantzizkoa izatea eta modu esanguratsuan eta berdintasun-baldintzetan parte hartzea haiei eragiten dieten erabakietan.